En el documento remitido no se hace mención expresa a ningún objetivo ambiental para el nuevo PGOU. Solamente de manera implícita se hace referencia a ordenación del suelo no urbanizable acorde con las Directrices de Ordenación del Territorio y a la consideración en la ordenación urbanística del Parque Natural y LIC de Armañón. Entre los objetivos generales del nuevo PGOU está la adaptación a la legislación del suelo vigente, legislación del suelo que tiene como principio general el del desarrollo sostenible. El PGOU deberá establecer sus objetivos ambientales bajo esta premisa y deberá responder a los siguientes objetivos de carácter ambiental:

- Calidad del medio, entorno vital saludable: obtener un espacio de disfrute, evitar los riesgos asociados a la contaminación (suelo, agua, aire) y evitar la afección al bienestar por el ruido

airearen kutsadurak dakartzan arriskuak saihestea, eta inguruneko zarataren ondorioz ongizatea hondatu ez dadin saiatzea.

- Udal mugarteko ur masen egoera ekologiko ona lortzea: udalerria zeharkatzen duten ibai-erreken gaineko eragina ahal den neurrian murriztea, haien egoera kimikoa eta ekologikoa hobetzea. Uharrizko kare haitzei lotutako akuiferoaren egoera ez aldatzea.
- Interesa eta balioa duten kultur ondareko elementuak babestu eta zaharberritzea.
- Biodibertsitatea eta paisaia: kontserbaziorako interesa duten habitatak babestu eta hobetzea. Interes natural berezia duten eta legeak babesten dituen landare eta animalia espezieak babestea udal mugartean. Turtziozko paisaiaren kalitatea zaintzea.
- Ingurumen arriskuak (uholdeak, arrisku geoteknikoak eta abar) ahal den neurrian murriztea.

**4.- INGURUMEN INTERES BEREZIKO BALIABIDE ETA ESPAZIOAK, ETA HORIEK BABESTEKO HELBURUAK.**

Turtziozko udalerria naturaltasun handiko lekua da Bizkaiko ingurune orokorrarekin alderatuta. Armañongo Parkeko eremu babestua ez ezik, baditu garrantzi handiko beste natur balio batzuk ere. Aipagarriak dira Artadi eta harizti autoktonoak, Gordongo eta Peñalvako eremu karstikoak eta bertako barrunbe mordoa, Armañongo eta Alengo estazio megalitikoak, eta nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalei lotutako paisaia ongi kontserbatuak, esate baterako, San Roke baselizaren inguruko edo Gordon, Cueto eta Recueto auzoetako landazabalak. Agüera ibaia egoera ekologiko onean dago.

ambiental.

- Obtener el buen estado ecológico de las masas de agua del ámbito municipal: minimizar la afección a los cauces que atraviesan el municipio, mejorar su estado químico y ecológico. No afectar al estado del acuífero ligado a las calizas arrecifales.
- Proteger y restaurar los elementos del patrimonio cultural de interés y valor.
- Biodiversidad y Paisaje: protección y mejora de hábitats de interés para la conservación. Protección de especies de flora y fauna presentes en el ámbito municipal de especial interés naturalístico y que cuentan con protección legal. Preservación de la calidad paisajística del entorno de Trucios/Turtzioz.
- Minimizar riesgos ambientales como inundaciones, riesgos geotécnicos, etc.

**4.- RECURSOS Y ESPACIOS DE ESPECIAL INTERÉS AMBIENTAL Y OBJETIVOS DE PROTECCIÓN.**

El municipio de Trucios/Turtzioz presenta una elevada naturalidad en el contexto de Bizkaia. Además del espacio protegido del parque de Armañón contiene valores naturalísticos relevantes. Destacan los bosques autóctonos de encinas y de robles, las áreas kársticas de Gordón y de Peñalva, con un número importante de cavidades, las estaciones megalíticas de Armañón y Alen, espacios con paisaje bien conservado asociado a usos agropastorales tradicionales como las campiñas en el entorno de la ermita de San Roque o de los barrios de Gordón, Cueto y Recueto. El río Agüera se encuentra en Buen Estado Ecológico.

Se considera necesario tener en cuenta en la

Beharrezkotzat jotzen da honako alderdi hauek baloratzea eta aintzat hartzea udalerria antolatzeko hautabideak lantzerakoan:

elaboración de alternativas de ordenación del municipio y valorar los siguientes aspectos:

### *4.1. Ondareko elementuak*

Kontuan hartu beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroak euren txostenetan aipatutako elementuak, bai eta Udalak berak kultur ondarearen ikuspegitik interesekotzat jotzen dituen elementuak ere. Otsailaren 3ko 25/2009 Dekretuaren bitartez kultur ondasun izendatu ziren, Monumentu Multzo kategoriarekin, Bizkaiko Lurralde Historikoko estazio eta monumentu megalitikoak, tartean Armañongoa eta Alen edo Arribaltzagakoa. Armañongoa Parke Naturalaren barruan dago, eta Arribaltzaga edo Alengoa lurzoru urbanizaezinean dago. Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan kontuan hartu beharko da aipatutako dekretuan erabilerei buruz aurreikusten den arauketa.

### *4.1. Elementos del patrimonio*

Se deberán tener en cuenta los elementos informados por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia y por el Centro de Patrimonio Cultural Vasco del Gobierno Vasco, además de los elementos que el propio municipio considere de interés desde el punto de vista del patrimonio cultural. Por medio del Decreto 25/2009, de 3 de febrero, se califican como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, las Estaciones y Monumentos Megalíticos, que se hallan en el Territorio Histórico de Bizkaia, entre ellas las de Armañón y Alen o Arribaltzaga. La de Armañón se ubica dentro del Parque Natural y la de Arribaltzaga o Alen sobre suelo no urbanizable. En la ordenación de éste se deberá tener en cuenta la regulación de usos prevista en el citado Decreto

### *4.2.- Paisaia*

Turtziozko udalerri osoa dago katalogatuta, Eusko Jaurlaritzak egin duen EAEko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren Aurreproiektuan. Eusko Jaurlaritza Balmaseda-Zalla aldeko Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoa eta Gidalerroak egiten ari da, eta Turtziozko udalerria horren barruan dago. Kontuan hartu beharko da ildo horretan prestatu den informazioa: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-cpaisaia/es/contenidos/informacion/paisaia_2011_encartaciones/es_paisaia/indice.html

### *4.2.- Paisaje*

La totalidad del municipio de Trucios/Turtzioz se encuentra catalogado, en el Anteproyecto del Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV del Gobierno Vasco. En la actualidad el Gobierno Vasco está llevando a cabo la redacción del Catálogo y Directrices del Paisaje del Área Funcional de Balmaseda-Zalla donde se inserta el municipio de Trucios/Turtzioz. Se deberá tener en cuenta la información elaborada al respecto disponible en http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-cpaisaia/es/contenidos/informacion/paisaia_2011_encartaciones/es_paisaia/indice.html

### *4.3. Interes geologikoko guneak*

Turtziozko udalerrian formazio karstiko

### *4.3. Puntos de interés geológico*

En el municipio de Trucios alberga

interesgarriak daude, kontuan hartzekoak lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan eta bertan onartzen diren jardueren eraginen balorazioan.

interesantes formaciones kársticas a considerar en la ordenación del suelo no urbanizable y en la valoración de impactos de las actividades permitidas en el mismo.

### *4.4. Azaleko hidrologia*

Udalerriko ur masak egoera ekologiko onean egon daitezen eta gehiago degradatu ez daitezen lortzea izango da ingurumen helburua. Mendebaldeko Kantauriko Mugapeko Plan Hidrologikoan berariaz ezartzen dira kalitate helburuak ur masa bakoitzerako. Hemen kontsultatu daiteke: http://www.chcantabrico.es/images/pdf/actuaciones/planificacion_hidrologica/nuevo_phc/dhc_occidental/memoria/capitulo07_objetivos_medioambientales.pdf. Gaur egun egoera ekologiko onari dagokionez helburua betetzen da, Agüera ibaian behintzat, Uraren Euskal Agentziaren datuen arabera: http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informe_estudio/red_rios/es_red_agua/2010.html. Iraunkortasunari buruzko txostenean udalerriko ur masei eta haien egoera ekologikoari buruz dagoen informazioa jaso beharko da, jasaten dituzten presioak identifikatu, ur masen gaineko eraginei dagokienez planeamenduak aurreikusten duena baloratu, eta neurriak proposatu behar dira eragin horiek gutxitzeko eta aldi berean egoera edo potentzial ekologikoa hobetzeko.

### *4.4. Hidrología superficial.*

El objetivo ambiental a considerar es la consecución del buen estado ecológico y no degradación adicional, de las masas de agua del municipio. Específicamente en el Plan Hidrológico de la Demarcación del cantábrico Occidental se establecen los objetivos de calidad para cada masa de agua, y puede consultarse en http://www.chcantabrico.es/images/pdf/actuaciones/planificacion_hidrologica/nuevo_phc/dhc_occidental/memoria/capitulo07_objetivos_medioambientales.pdf. El objetivo de buen estado ecológico actualmente se cumple, al menos en el río Agüera según los datos de la Agencia vasca del Agua disponibles en http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informe_estudio/red_rios/es_red_agua/2010.html. El Informe de Sostenibilidad deberá incorporar la información existente acerca de las masas de agua del municipio y su estado ecológico, identificar las presiones existentes, valorar las previsiones del planeamiento respecto a la posible incidencia sobre las masas de agua y proponer medidas para su minimización y a la vez mejorar el estado o el potencial ecológico.

### *4.5. Eremu babestuak*

Armañongo Parke Naturalak Turtziozko udalerrian du zati handi bat, eta parke naturala izateaz gainera Natura 2000 Sarean sartu dute (Armañongo BILa, ES2130001 kodea). Agüera ibaia ere, udalerria baino beherago, Kantabriako tartean, Europar Batasunaren Intereseko Leku izendatu dute (Agüera ibaiko BILa, ES130012 kodea). Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007

### *4.5. Áreas protegidas*

El Parque Natural de Armañón se encuentra en buena medida dentro del municipio de Trucios/Turtzioz, habiendo sido además incluido en la Red Natura 2.000 (LIC Armañón, código ES2130001). Además aguas abajo del municipio el río Agüera en su tramo cántabro también está declarado Lugar de Interés Comunitario (LIC río Agüera, código ES130012). El estudio de impacto ambiental deberá aplicar el Artículo 45 de la

Legearen 45. artikulua aplikatu beharko da ingurumen eraginaren azterlanean.

Ley 42/2.007, de Patrimonio Natural y Biodiversidad.

### *4.6. Pasabide ekologikoak*

EAEko Pasabide Ekologikoen Sarea kontuan hartu beharko da eta gainjarritako baldintzatzailetzat hartu, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak proposatzen duen bezala. Halaber kontuan hartu beharko da EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (behin-behinean onetsitako agiria). Hirigintzako planeamenduak eta iraunkortasunari buruzko txostenak eremu horietan jarduerak eta erabilerak garatzeko baldintzak zehaztu beharko dituzte, halako moldez non konexio ahalmenari eutsiko baitzaio.

### *4.6. Corredores ecológicos*

Se deberá considerar la Red de Corredores Ecológicos de la CAPV considerándola como un condicionante superpuesto como propone la Dirección de Biodiversidad del Gobierno Vasco así como el PTS Agroforestal de la CAPV (documento de aprobación provisional). El planeamiento urbanístico y el Informe de Sostenibilidad deberán definir las condiciones de desarrollo de actividades y usos en estas superficies de manera que se mantenga la capacidad conectora.

### *4.7. Fauna*

Iraunkortasunari buruzko txostenean faunaren gaineko kapitulu bat egingo da. Udalerriak dituen interes handieneko fauna taldeen eta ezagutzen zaien banaketaren gaineko informazioa jasoko da bertan. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak emandako informazioa erabili ahalko da. Kontuan hartuko dira faunarentzat interes handiena duten habitatak, hala nola baso autoktono helduak, landazabalak, harkaitzak, eremu karstikoak eta erreka sarea. Bereziki aipatzekoak dira udalerriko alde karstikoak, barrunbeak eta galeria sareak, balitekeelako ondo ezagutzen ez diren espezie kalteberak bizitzea leku horietan, esate baterako kiropteroen taldekoak. Azterlanean baloratu egin behar da udalerriko erabileren arauketak nola eragingo dion faunari. Proposatu ahalko da eremu edo gune jakin batzuetan jarduketak mugatu daitezela interes bereziko espezieak egoteagatik, edo eremu horiek babes berezikoak izan daitezela.

Arreta berezia behar du kiropteroen

### *4.7. Fauna*

El Informe de Sostenibilidad deberá incluir un capítulo específico sobre fauna donde se incluirá información acerca de los grupos faunísticos de mayor interés en el municipio y su distribución conocida. Para ello se podrá utilizar la información aportada por la Dirección de Biodiversidad del Gobierno Vasco. Se tendrán en cuenta los hábitats de mayor interés para la fauna como bosques autóctonos maduros, zonas de campiña, zonas de roquedos, zonas kársticas y red fluvial. Especial mención merecen las zonas kársticas del municipio, las cavidades y redes de galerías existentes, que pueden albergar especies sensibles insuficientemente conocidas como las del grupo de los quirópteros. El estudio deberá valorar las posibles afecciones de la regulación de usos del ámbito del municipio sobre la fauna, pudiendo proponer áreas o espacios donde se limiten actuaciones por la presencia de especies de especial interés, o considerando esas zonas como de Especial Protección.

Especial atención merece la comunidad de quirópteros del área, insuficientemente

komunitateak. Ez da ondo ezagutzen, baina garrantzitsua izan liteke, animalia horiek bizitzeko edota ugaltzeko leku egokiak ugariak direlako: barrunbeak, hutsarteak, eraikuntza utziak eta abar.

conocida, pero con elevada potencialidad dada la presencia de numerosas cavidades, huecos, construcciones abandonadas, etc. que pueden suponer lugares de refugio y/o reproducción para este grupo faunístico.

### *4.8. Flora eta landaredia*

EAEko Landarediaren Mapak eta Baso Inbentarioak oinarrizko eta ezinbesteko informazioa ematen dute udalerriko lurraldea behar bezala antolatzeko. Natur balio handieneko guneak identifikatu beharko dira, hala nola baso hostozabal autoktonoak eta Europar Batasunaren intereseko habitatak, eta lehentasunezkoak zeintzuk diren zehaztu. Halaber, katalogatutako landare espezieen banaketari buruz eskura dagoen informazioa erabili behar da.

Halaber kontuan hartu beharko da kanpoko landare inbaditzaileen arriskua, batez ere hirigintzako hazkunderako edo ekipamendu, sistema orokor eta abarrekoak kokatzeko asmotan hautatzen diren aldeetan.

### *4.8. Flora y vegetación.*

El Mapa de Vegetación de la CAPV y el Inventario Forestal aportan información territorial básica e imprescindible para hacer una correcta ordenación del ámbito municipal. Se deberán identificar las formaciones de mayor valor naturalístico como bosques de frondosas autóctonas y los hábitats de interés comunitario, especificando los prioritarios, así como la información disponible sobre distribución de especies de flora catalogadas.

También se deberá tener en cuenta la posible presencia de flora alóctona invasora en el ámbito municipal, en especial en las zonas donde se estudien alternativas de crecimiento urbanístico, ubicaciones de equipamientos, sistemas generales, etc.

### *4.9. Lurpeko urak*

Turtziozko udalerrian bereziki ugariak dira sistema karstikoak, Enbata elkarteak igorritako informazioak erakusten duenez. Egitura horiei kutsadurak kalte handia egiten die, eta bereziki ahulak dira kanpotik jasotzen dituzten erasoen aurrean (jarduera kutsatzaileak, harrobiak eta abar.). Lurpeko uren egoera kimiko onari eustea izango da ingurumen helburua. Kontuan hartu beharko dira akuiferoen kutsaberatasunaren mapa, Eusko Jaurlaritzak egina, eta lurpeko urei buruz eskura dagoen gainerako informazioa (Iturriotz erreka): http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informacion/calidad_aguas/es_doc/calidad_aguas_subterraneas.html

### *4.9. Aguas subterráneas.*

El municipio de Trucios es especialmente rico en sistemas kársticos tal como se refleja en la información remitida por la Asociación Enbata. Estas formaciones tienen una elevada vulnerabilidad a la contaminación y son especialmente frágiles frente a perturbaciones exteriores como actividades contaminantes, canteras, etc. El objetivo ambiental es el mantenimiento del buen estado químico de las aguas subterráneas. Se deberá tener en cuenta el mapa de vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos del Gobierno Vasco, así como otra información disponible respecto de las aguas subterráneas (manantial Iturriotz): http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informacion/calidad_aguas/es_doc/calidad_aguas_subterraneas.html

### *4.10. Udalerriko natur ondasunen katalogoa*

HAPO berria tramitatzen den bitartean natur ondasunen katalogoa onetsi ahalko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAEko 2/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Katalogoan udalerriko ingurumen intereseko elementuak sartuko dira, bereziak direnak lehenetsiz: zuhaitz monumentalak, ingurune karstikoetako iturburuak, etab.

### *4.10. Catálogo de bienes naturales del municipio*

A la vez que se tramita el PGOU se podrá aprobar el catálogo de bienes naturales según se establece en el Artículo 76 de la ley 2/2.006, del Suelo y Urbanismo de la CAPV. En el catálogo se incluirán los elementos de interés ambiental del municipio, priorizando aquellos que tengan un carácter singular: árboles monumentales, surgencias de agua en ambiente kárstico, etc.

## 5. KONTUAN HARTU BEHAR DIREN BESTE INGURUMEN ELEMENTU BATZUK

## 5. OTROS ELEMENTOS DEL MEDIO A CONSIDERAR

### *5.1. Lurzoru kutsatuak*

Gordon auzoko sarreran dagoen hondakindegiak ingurumenari kalte egiten dio, bai paisaiaren aldetik baita lurpeko uren kutsadurari dagokionez ere, eremu karstiko batean dagoelako. Itxita egon arren, oraindik hondakinak jasotzen ditu, hainbat motatakoak, eta beherago dagoen artadian ukitzen duen zatia gero eta handiagoa da. Lurzoru urbanizaezineko "Ingurumenaren hobekuntza" kategorian sartu behar da, eta, hirigintzako planeamenduak aukera ematen duen neurrian, haren ingurumen-egokitzapenerako jarduketak zehaztu behar dira.

Atal honen balorazioan kontuan hartu beharko da IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak igorritako informazioa.

### *5.1. Suelos contaminados*

El vertedero situado en la zona de acceso al barrio de Gordón constituye una afección ambiental negativa, tanto desde el punto de vista paisajístico, como de la posible contaminación de las aguas subterráneas, al ubicarse en una zona kárstica. Si bien se encuentra formalmente clausurado, la realidad es que se siguen vertiendo residuos, de diferente tipología, y se sigue ampliando la afección al encinar situado a cota más baja. Deberá incluirse en la categoría de mejora ambiental en el suelo no urbanizable y, en lo que posibilite el planeamiento urbanístico, determinar las actuaciones a realizar para su adecuación ambiental.

En la valoración de este apartado se deberá considerar la información remitida por la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE.

### *5.2. Zarata*

Zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta zarata emisioari buruzko 1367/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarrita dagoen moduan, udalerriko zonakatze akustikoa egin beharko da, errege dekretu

### *5.2. Ruido*

Atendiendo a lo establecido en el Artículo 13 del Real Decreto 1.367/2.007 sobre zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas, se deberá realizar la zonificación acústica del municipio,

horren 5. artikuluaren eta V. eranskinaren arabera definitutako eremu akustikoak erabiliz. Baloratu egin beharko da g) motako eremu akustikoak ezartzeko aukera: “kutsadura akustikoaren kontrako babes berezia behar duten gune naturalak”.

Ingurumen eraginak ahalik gehien murriztuko dituen hirigintzako planeamendua egitearren, honako hauek baloratu beharko dira zarata igorle gisa: udalerriko hegoaldean dagoen industrialdea eta BI-2617 foru errepidea. Errepideko zaratari eta balizko zortasun akustikoari dagokienez (Aldundi honetako Bide Azpiegituren Zuzendaritzak bere txostenean aipatzen duen zortasun akustikoaz ari gara), errepidearen titularrak proposatu behar luke zortasun hori, zaratari buruzko araudian ezarrita dagoenez. Iraunkortasunari buruzko txostenean, nolanahi ere, errepideko zarataren mapa jaso beharko da, hiri lurzoruan, lurzoru urbanizaezinean eta landaguneetan zehar edo ondotik igarotzen diren tarteetan, behintzat.

considerando las Áreas Acústicas definidas según el Artículo 5 y el Anexo V del citado Real Decreto. Deberá valorarse la consideración de las áreas acústicas de tipo g), “espacios naturales que requieran una especial protección contra la contaminación acústica”.

Como emisores acústicos a valorar para realizar un planeamiento urbanístico que minimice las afecciones ambientales deberán considerarse el polígono industrial al sur del municipio y la carretera foral BI-2617. Respecto al ruido inducido por la carretera y la referencia a la posible servidumbre acústica generada por ésta, a la que hace referencia la Dirección de Infraestructuras Viarias de esta Diputación en su informe, es el titular de la carretera quien debiera plantear tal servidumbre, según se establece en la normativa del ruido. No obstante el Informe de Sostenibilidad deberá incluir un mapa de ruido de la carretera, al menos en los tramos que atraviesan o colindan el suelo urbano, urbanizable y los núcleos rurales.

### *5.3. Ingurumen azpiegiturak*

Turtziozko hondakin uren araztegiaren kokalekuari dagokionez, Arau Subsidiarioen aldaketa tramitatzen ari da araztegia ezartzeko, eta berekin ekarriko dituen ondorioak eta baldintzak jaso beharko dira. Gaur egungo hirigintza planeamenduan jasorik ez dagoen kolektore-zatiari ingurumen balorazioa egin beharko zaio, ahal dela, Arau Subsidiarioak aldatzeko egiten ari den tramitean bertan. Izan ere, bi azpiegiturak, kolektoreak eta araztegia, Turtziozko udalerriarentzat aurreikusitako saneamendu-soluzioaren parte dira eta haien ebaluazioa ez da bereiz egin behar. Jarraitu beharreko irizpide gisa, ahalik eta gutxien ukitu behar dira Agüera ibaiaren eta gurutzatu beharreko beste erreka batzuen parametro hidromorfologikoak.

### *5.3. Infraestructuras ambientales*

Respecto a la ubicación de la EDAR de Trucios/Turtzioz deberán incorporarse las conclusiones y condiciones que se deriven del trámite de modificación de las NNSS actualmente en curso, para la implantación de la EDAR. La parte del trazado de los colectores no recogida en el actual planeamiento urbanístico deberá ser objeto de valoración ambiental, preferiblemente en el trámite de modificación de las NNSS actualmente en trámite, ya que ambas infraestructuras, colectores y EDAR forman parte de la solución de saneamiento previsto para Trucios/Turtzioz, por lo que su evaluación no debe desligarse. El criterio ambiental a seguir es la mínima afección a los parámetros hidromorfológicos del río Agüera y otros cauces que sea preciso cruzar, es decir, no afección a bosque de ribera y lecho

Hau da, ez dira ukitu behar bazterretako basoak eta ibai oheak, eta Agüera ibaia gurutzatzeko, teknika aldetik ahal den guztietan, hodia lurpetik sartuko da.

Landaguneetan lehendik dauden edo aurreikusten diren saneamendu sistemen gaineko informazioa eman beharko da, eta nahikoak ote diren aztertu, kontuan izanik landaguneen antolamendua eta balizko hazkundea.

Ur hornidurari dagokionez, HAPO berrian kontuan hartu beharko dira ur-bilketak eta hodiak, baita tratamendu estazioa ere. Behar bezala azaldu beharko da ea lehendik dauden ur-bilketak eta erregulazio-sistemak nahikoak izango ote diren biztanleriaren hazkunde berrietarako, Osasun Publikoaren Zuzendaritzak bere txostenean dioen bezala. Nahikoak ez badira, behar diren jarduketak planteatu beharko dira, eta ingurumenean izango duten eragina baloratu.

Mugikortasunari dagokionez, foru errepideen sareaz gainera kontuan hartu beharko dira auzoen edo etxebizitza guneen arteko bide publikoak ere, eta horiek berreskuratzeko eta erabilgarri jartzeko jarduketak proposatu beharko dira, mugikortasun iraunkorraren aldeko elementuak baitira.

Ingurumen tramiteari ekiteko bidali den dokumentuan "lurralde azpiegituren sistema orokor" baterako lur erreserba egitea planteatzen da. Udalerrian ezarri nahi den azpiegitura hori, igorritako memoriaren arabera, energia ekoizteko planta bat da. Onura publikoko "Betaio" mendian kokatu nahi da. Mendiei buruzko Foru Arauaren 9.1 artikuluaren arabera, onura publikoko mendiak babes bereziko lurzoru urbanizaezintzat hartu eta sailkatu behar dira. Energia planta errepidetik urrun kokatuko litzateke. Kokalekua paisaiaren aldetik kalitate handikoa da, iragazkortasun

de los cauces, debiéndose proyectar los cruces sobre el Agüera mediante hincas, siempre que sea viable técnicamente.

Se deberá aportar información acerca de los sistemas de saneamiento existentes o previstos en los núcleos rurales y su suficiencia, teniendo en cuenta la ordenación de los mismos y su posible crecimiento.

Respecto al abastecimiento se deberán considerar en el PGOU las tomas y conducciones así como al Estación de Tratamiento. Se deberá justificar convenientemente si con las captaciones y con los sistemas de regulación existentes se podrá atender a los nuevos crecimientos de población previstos, tal como informa la Subdirección de Salud Pública. En caso contrario se deberán plantear actuaciones para ello y valorar sus repercusiones ambientales.

En cuanto a la movilidad, además de la red foral de carreteras se deberán considerar los caminos públicos que conecten barrios o zonas residenciales, y proponer actuaciones para su recuperación y puesta en servicio, como elementos que favorecen una movilidad sostenible.

El documento remitido para el inicio del trámite ambiental plantea una reserva de suelo para un "sistema general de infraestructuras territoriales en el municipio" que según la memoria remitida corresponde con una planta para generar energía. La ubicación prevista pertenece al Monte de Utilidad Pública "Betayo" que según el Artículo 9.1. de la Norma Foral de Montes deben ser considerados y calificados como suelos no urbanizables de protección especial. La planta se ubicaría en una posición alejada de la carretera, en un lugar de alta calidad paisajística, de alta permeabilidad y muy alta vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos y en el centro del corredor ecológico Armañón-Ganekogorta, lo cual

handikoa, akuiferoak kutsatzeko arrisku handia du, eta Armañon-Ganekogorta pasabide ekologikoaren erdian dago. Beraz, ez da leku egokia industria instalazio baterako. Horrelako instalazioak jarduera ekonomikoetarako lurzoruan kokatu behar dira. Gainera, Balmaseda-Zalla aldeko Lurralde Plan Partzialak, 85. artikuluan, Balmasedako udalerria proposatzen du biomasa planta baterako kokaleku gisa.

hace inadecuada esta ubicación para una instalación de tipo industrial, que debiera ubicarse en suelo para actividades económicas. Además el PTP de Balmaseda-Zalla, en su Artículo 85 propone Balmaseda como municipio donde implantar una central de biomasa.

### *5.4. Prozesuak eta arriskuak*

Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluak dioenez, *"Urbanizazio jarduketak antolatzeko tresnen ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenak barruan eduki beharko du antolatu beharreko eremuko arrisku naturalen mapa"*.

Kontuan hartu beharko dira uholde arriskuak, eta udal mugartean egindako azterlan hidraulikoak aurkeztu beharko dira, Basinagre eta Agüera auzoetakoak barne. Kontuan hartu beharko dira bertan behera utzitako meatzeetako egituren arriskuak (Energiaren Euskal Erakundeak horien berri ematen du bere txostenean), akuiferoak kutsatzeko arriskua eta higadura arriskua, baita trafiko istripuak eta suteak gertatzeko arriskuak ere. Eusko Jaurlaritzak Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak emandako informazioa oso baliagarria izan daiteke horretarako.

Bertan behera utzitako meatze egiturak arau orokor gisa "Ingurumenaren hobekuntza" kategorian sailkatuko dira, baina banaka aztertu beharko dira. Izan ere, inguruan egokitzeko aukera, arriskuak eta abar kontuan hartuta, baliteke beste kategoria egokiago bat aplikatu behar izatea, edo areago, EEEk txostenean dioen moduan, egitura horiek ondareko

### *5.4. Procesos y riesgos*

Según determina el Artículo 15 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo *"El informe de sostenibilidad ambiental de los instrumentos de ordenación de actuaciones de urbanización deberá incluir un mapa de riesgos naturales del ámbito objeto de ordenación"*.

Se deberán considerar los riesgos de inundación, aportando los estudios hidráulicos que existan en el ámbito del término municipal, incluyendo los núcleos de Basinagre y de Agüera. Se deberán tener en cuenta los riesgos asociados a las estructuras mineras abandonadas, de las cuales aporta información el EVE en su informe, la vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos y los riesgos de erosión, además de riesgos asociados a accidentes de tráfico y riesgo de incendio. La información aportada por la Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco, puede ser muy útil a tal fin.

Como regla general las estructuras mineras abandonadas se incluirán en la categoría de mejora ambiental, si bien deberá analizarse cada caso, dado que la posible integración en el entorno, riesgo existente, etc. puede aconsejar la aplicación de otra categoría, incluso, tal como apunta el EVE en su informe, considerando estas estructuras como

elementutzat hartzea.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAEko 2/2006 Legearen 13.2.c) artikuluan ezarrita dagoenez, hirigintza-eraldaketa ez da bidezkoa "*higadura, erorketa, luizi, sute edo uholdeetarako arriskua edo beste arrisku natural edo teknologiko garrantzitsu batzuk, bereziki hondamendi-arriskua, sortzen dituenean edo halakoen arriskua saihesten ez duenean*". Ingurumen arriskuak dituzten lurrek lurzoru urbanizaezin izaten segitu beharko dute. Hirigintzako Arauek kontuan hartu beharko dituzte ingurumen arrisku horiek, erabilerak eta jarduerak arautzeko.

### *5.5. Nekazaritzako lurzorua*

Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren txostenaren arabera, eta Balmaseda-Zalla aldeko Lurralde Plan Partzialaren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabal eremuan bereizi egin beharko dira balio estrategiko handiko nekazaritza lurzorua eta trantsizioko landa paisaia, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean jasotako mugapenak kontuan hartuz. Gomendagarria da abeltzaintzako ustiategi profesionaletako lurzoruak balio estrategiko handiko kategorian sailkatzea. Ingurumen eraginaren azterlanean nekazaritzako sektorearen gaineko eragina aztertu beharko da, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean azaltzen den moduan. Kontuan hartu behar dira Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak bere txostenean egindako oharrak eta gomendioak.

### *5.6. Erauzketa jarduerak*

Pandosen lehendik dagoen kaltzitazko harrobia eta erauzketa-jardueretarako lurzoruko eremu berri bat grafiatu dira hiri

elementos del patrimonio.

Atendiendo a lo establecido en el Artículo 13.2.c) de la Ley 2/2.006 del Suelo y urbanismo de la CAPV que establece que es improcedente la transformación urbanística "*Cuando provoque o no elimine riesgos ciertos de erosión, desprendimientos, corrimientos, incendios, inundaciones u otros riesgos naturales o tecnológicos relevantes, en especial de catástrofe*" los suelos sujetos a riesgos ambientales deberán mantener su clasificación como no urbanizables. Las Normas urbanísticas deberán tener en cuenta estos riesgos ambientales para la regulación de usos y actividades.

### *5.5. Suelo agrario*

Atendiendo al informe de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco y en concordancia con lo establecido en el Artículo 20 del PTP de Balmaseda-Zalla se deberá diferenciar en la zona Agroganadera y Campiña el suelo agrario de Alto Valor Estratégico y el Paisaje Rural de Transición, considerando las delimitaciones incluidas en el PTS Agroforestal. Es recomendable que los suelos de las explotaciones ganaderas profesionales se incluyan en la categoría de Alto Valor Estratégico. El estudio de impacto ambiental deberá realizar el análisis de la afección sectorial agraria, tal como se define en el PTS Agroforestal. Deben considerarse los comentarios y las recomendaciones que la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco hace en su informe.

### *5.6. Actividades extractivas*

Se grafía la mina de calcita de Pandos, ya existente, y un nuevo suelo de actividades extractivas al norte del suelo urbano

lurzoru finkatuaren iparraldean, Pandoko landagunearen inguruetan. Turtziozko udalerrian harrobi bat kokatzeko aukerak ez dauka oinarririk harrobi- eremuei buruzko plangintza sektorialean, hori garatu gabe dagoelako, Balmaseda-Zalla aldeko Lurralde Plan Partzialak gogorarazten duen bezala. Harrobi berria egiteko proposatzen den tokia babes berezikotzat irudikatuta dago Balmaseda-Zalla aldeko Lurralde Plan Partzialean, artadi handi bat dagoelako bertan. Lurralde Plan Partzialaren 88. artikuluak dioenez, ezingo da erauzketa jarduerarik egin babes berezikotzat mugatutako aldeetan, eta horixe gertatzen da proposatutako harrobiaren kasuan. Lurralde planeamenduarekin bateraezina izateaz gainera, ingurumenaren ikuspegitik ere, proposatutako kokapenak seguru asko eragin kritikoa izango luke: Peña Loredoko karstaren eta bertako artadiaren gaineko eragin konponezina, harrobi ondoko etxebizitzetako biztanleen gaineko eragina, berezitzat eta bikaintzat katalogatuta dagoen Turtziozko paisaiaren eta Armañon-Ganekogorta pasabide ekologikoaren gainekoa. Harrobia onura publikoko 123 zenbakiko mendian kokatuko litzateke, "lehentasunez kontserbatu beharrekoa" den zuhaizti batean, Turtziozko Onura Publikoko Mendiak Kudeatzeko Planaren arabera: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=4302&Idioma=CA Aurrekoa dela eta, komenigarria litzateke erauzketa jardueretarako eremu hori hirigintzako antolamendutik baztertzea.

consolidado y en las cercanías del núcleo rural de Pando. La ubicación de una cantera en el municipio de Trucios/Turtzioz no tiene soporte en la planificación sectorial sobre zonas canterables, dado que esta no se ha desarrollado tal como recuerda el PTP de Balmaseda-Zalla. El PTP de Balmaseda-Zalla grafía la zona donde se propone ubicar una nueva cantera como de Especial Protección al albergar un extenso bosque de encinas. El PTP determina en su Artículo 88 que no se podrán desarrollar actividades extractivas en las zonas delimitadas como de Especial Protección, como es el caso de la cantera propuesta. Además de su incompatibilidad con el planeamiento territorial, desde un punto de vista estrictamente ambiental la ubicación propuesta supondría un impacto probablemente crítico por su afección irreversible sobre el karst de Peña Loredo y el encinar que alberga, la afección sobre la población, con viviendas colindantes a la cantera, la cuenca visual de Trucios catalogada como Singular y Sobresaliente, el corredor ecológico Armañón-Ganekogorta. La cantera se ubicaría sobre un monte catalogado como Monte de Utilidad Pública, nº 123, habiéndose establecido para el rodal donde se plantea la cantera el objetivo de "conservación preferente" según el Plan de gestión de los M.U.P. de Trucios/Turtzioz: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=4302&Idioma=CA En base a lo anterior sería conveniente desechar del planeamiento urbanístico el planteamiento realizado de zona de actividades extractivas.

## 6. LURZORU URBANIZAEZINAREN KATEGORIAK ETA ANTOLAKETA

Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan, lurralde plan sektorialetan eta Balmaseda-Zalla aldeko Lurralde Plan Partzialean zehaztutako kategorien arabera antolatu behar da lurzoru urbanizaezina,

## 6. CATEGORIZACIÓN Y ORDENACIÓN DEL SUELO NO URBANIZABLE

La ordenación del suelo no urbanizable deberá hacerse en concordancia con las categorías de ordenación definidas en las DOT, los planes territoriales sectoriales y el

Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak txostenean adierazi duenez. Lurralde plan partzial horren II. ataleko 16. artikuluan eta hurrengoetan nahiko zehatz definitzen dira antolamendu eremuak.

Gainjarritako baldintzatzaile gisa hartu beharko dira Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean eta Balmaseda-Zalla aldeko Lurralde Plan Partzialean definitutakoak. Ildo horretan, gainjarritako baldintzatzaile gisa jaso beharko dira EAEko pasabide ekologikoak, EAEko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoa, natur eremu babestuak, erraz kutsatzen diren aldeak, eta uholde edo higadura arriskua eta bestelako ingurumen arriskuak dituzten eremuak.

Turtziozko udalerria hornitzen duten iturburuen inguruetan babes eremuak ezarri beharko dira, urei buruzko araudian ezarritakoa betez, baliabidearen kalitatea babesteko eta herriaren hornidura kolokan jar lezaketen kutsapenak saihesteko. Kantauriko Mendebaldeko Mugapeko Plan Hidrologikoaren araudiaren zirriborroak 100 metroko erradioko eremua ezartzen du iturburuen eta ibai-erreketako harguneen inguruan: http://www.chcantabrico.es/images/pdf/actuaciones/planificacion_hidrologica/nuevo_phc/dhc_occidental/normativa/normativa.pdf (55. artikulua). Hirigintzako araudiak jardueren mugak zehaztu beharko ditu babes eremu horietan, baliabidearen kalitatea bermatze aldera. Basogintzako lan intentsiboak mugatuta egon beharko dira babes eremu horietan. Babes eremu hori bat dator EAEko Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako Lurralde Plan Sektorialean ur harguneak babesteko ezarritako eremuarekin (LPSko C.3 araua).

Landaguneei dagokienez, halakotzat hartu

PTP de Balmaseda-Zalla, tal como informa la Dirección de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco. Este último, en la sección II, Artículos 16 y siguientes, define con bastante precisión los ámbitos de ordenación.

Se deberán considerar como condicionantes superpuestos los definidos en las DOT, el PTS Agroforestal y el PTP de Balmaseda – Zalla. En este sentido se deberán incorporar como condicionantes superpuestos los corredores ecológicos de la CAPV, el Catálogo de Paisajes Singulares y sobresalientes del a CAPV, los Espacios Naturales Protegidos, las zonas con vulnerabilidad a la contaminación, las áreas sometidas a riesgos ambientales como inundabilidad o erosión.

